

Funtsezko baliabideak

4 baliabide desberdinetaz osatuta daude:

1.Baliabide fisikoak: 7 ezaugarri kontuan hartu.

1.1.Ekoizpen instalazioak: Ez dugu ekoizpen instalaziorik behar gure hornitzaileak(produktua ekoiztuko digutenak), Huawei eta Garmin direlako.

1.2.Bulegoak: Guk alokatuko dugun bulegoak 120 metro karratu inguru izango ditu, aipatu dugun bezala hau lehenengo hilabetetan alokatua izango da, baina denbora pasa hala, enpresa hobeto joaten bada bulego hori ordaindu egingo dugu.

1.3.Ibilgailuak: Kotxeen beharra izango dugu, etxeetara joan behar garelako gure bezeroei produktua ofrezitzen, hala ere, ondoren aipatuko dugun bezala beste enpresa baten laguntzarekin salduko ditugu erlojuak bezeroen etxeetan. 5 kotxe inguru izango ditugu izango ditugu herriz herri despazatzen.

1.4.Makinak: Makina dexente jarriko ditugu gure bulegoan, adibidez hauetako batzuk telefonoa, inprimagailuak...

1.5.Sistema informatikoak: Gure erlojua intelijentea denez, hainbat sistema informatiko behar ditugu: Wi-fi, datu baseak, Wi-fia ez badu datuak edukitzea...

1.6.Salmenta puntuak: Ez ditugu dendak edukiko, beste enpresa batzuetan salduko ditugu gure produktuak adibidez: Garmin eta Huaweieko denda fisikotan salduko degu, hala nola Amazoneko web orrian.

1.7.Banaketa sarea:Gure enpresaren produktua gure bezeroen etxeetara eramango dugu. Hau beste enpresa batek egingo du (UPS eta DHL).

2.Baliabide intelektualak:4 ezaugarri kontuan hartu.

2.1.Markak:Skoni izango da izena eta logo bat izango du, logoan kolore minimalistak eta forma simetrikoak erabiliko dira.Logo honekin erakutsi nahi dugu gure enpresak erlojuetan enfokatuta daudela eta gure izena adierazten dugu.



2.2.Patentea: Skoni izena patentatua izango da. Hau da edozein enpresak gure enpresaren izena erabilitakoan diru kantitate bat ordaindu beharko du.

2.3.Egileen eskubidea: Skoniren izena edo logoa erabiltzeko ordaindu behar izango da.

2.4.Komunitateak:Foro batzuk irekiko dira bezeroen eskakizunak entzun ahal izateko.

-3.Giza baliabideak: 3 ezaugarri kontuan hartu.

3.1.Sormena: Gure enpresa hobetzeko sormena beharrezkoa izango da, produktua hobetzeko edo zerbitzu hobeago edo erakargarriagoa izateko.

3.2.Ezagutza: Gure bezeroak ezagutu beharko ditugu, hauen bizi baliabideak edo behar duten produktu motara moldatzeko. Bezero guztiek ez dituzte behar berdinak.

3.3.Gaitasun komertziala: Publizitatean inbertituko dugu, gure produktua bezero gehiagoei iristeko edo beste enpresa batzuetan promozionatu genezakeen.

4.Finantza baliabideak: Skoni enpresak adostu duena hau da: bazkide bakoitzak 1000€ jarriko ditu; beraz, 5000€ izango ditu eskudirutan.

Honez gain, mailegu bat eskatuko dugu, 200 000€koa. Diru hau inbertituko dugu: Enpresa bat azpikontratatzeko, alokairua ordaintzeko, materiala ordaintzeko, gure nominak ordaintzeko...